



Euskara ikasteagatik beka eskatzeko orria

Izen-deiturak:....., adinez nagusia,
Helbidea:
Udalerria: Probintzia:
DNI: Telefonoa:
Neure izenean edo-(r)enean,

adierazten dut

2019-2020 ikasturtean euskara ikasten ibili naizela. Hori dela eta, Lasarte-Oriako udalbatzarrak 2001eko urriaren 31n osoko bilkuran onetsitako eta 2013-12-20ko udalbatzarrean aldatutako "Lasarte-Oria herrian eta udalean euskararen erabilpena normalizatzeko arauari buruzko udal-ordenantza"ren 15. artikuluan jasotakoari eta Udal honetako Osoko Batzarrak, 2018ko martxoaren 13an onetsitako "Euskara saileko dirulaguntzak arautzeko oinarriak" (GAO 2018-03-22) dioenari jarraituz

eskutzen dut

Martxoaren 2ko Alkatezako 432/2020 Dekretu bidez onetsitako (GAO 2020-03-13) Euskara Saileko 2020ko dirulaguntzen deialdiaren arabera, dagokidan subentzioa ematea.

Gehitzen dudan informazioa:

- DNIaren fotokopia.
- Matrikularen ordainagiria. (*Lasarte-Oriako udal euskaltegiko ikasleek ez duzue matrikularen ordainagiria aurkeztu beharko. Udalak berak egiaztatuko du baldintza hori.*)
- Euskaltegiko zuzendariaren ziurtagiria.
- Udalez kanpoko subentziorik EZ jaso izana egiaztatzen duen agiria.
- Udalez kanpoko subentzioren bat jaso izana egiaztatzen duen agiria.
- Dirulaguntza onuradun izateko ez duela inolako debekurik adierazten duen agiria.
- Beka ordaintzeko kontua (IBAN+20 digitu): _ .

Lasarte-Orian, 202_ ko _____ren ____n
Sinadura,

Lasarte-Oriako Udaleko alkate-lehendakariari

Lasarte-Oriako Udala baimendua geratzen da dokumentu honetan jasotako datu pertsonalei tratamendu automatizatu emateko. Lasarte-Oriako Udalak konpromisoa hartzen du Izaera Pertsonaleko Datuak Babesteari buruzko 15/1999 Lege Organikoak ezarritakoa betetzeko. Interesatuak datuak eskuratzeko, kantzelatzeko, zuzentzeko eta oposatzeko eskubideak baliatu ahalko dituzte Lasarte-Oriako Udalaren aurrean.



INFORMAZIOA

BETE BEHARREKO BALDINTZAK

- Baldin eta beste administrazio edo entitate batzuetatik —publikoak nahiz pribatuak, estatukoak nahiz nazioartekoak— helburu bererako beste dirulaguntzarik jasotzen bada, organo laguntza-emaileari horren berri ematea.
- Dirulaguntza ematea ebazteko proposamena egin aurretik, Udalarekin zorretan ez egotea. Baldintza hori Udalak berak egiaztatuko du.
- Lasarte-Orian erroldatua egotea, ikastaroa hasi baino egun bat lehenagotik ikastaroa amaitu bitartean. Baldintza hori Udalak berak egiaztatuko du.
- 16 urte beteak izatea ikastaroa amaitzen den egunean.
- Ikasketa ofizial edo homologaturik eskaintzen duen euskaltegiren batean ikastaro hauetakoren bat egina izatea, gutxienez % 85eko asistentziarekin eta gutxienez % 80 aprobetxamendua gaindituarekin:
 - 1.- Euskaltegiko ikasturtean zeharreko ikastaroa, gutxienez 80 ordukoa.
 - 2.- Barnetegia, gutxienez hilabete segidan baldin bada.
 - 3.- Udako ikastaroak (euskaltegian bertan edo barnetegiaren). Ikasturtean zehar aurreko ikastaro-mota horietako bat egin duten ikasleen kasuan bakarrik subentzionatuko dira, betiere bekak jasotzeko baldintzak betetzen badituzte.
- Ikastaro bat diruz laguntzerakoan, matrikula ordaintzen den unetik hasiko da asistentzia kontatzen. Ikastaroa amaitu baino lehenago uzten dutenek ez dute dirulaguntzarik jasotzeko aukerarik izango.

ESKABIDEAK ETA EPEAK

Urtero, aurreko urteko irailaren 1a eta urte horretako abuztuaren 31 bitartean hasi eta bukatutako ikastaroak lagunduko dira. Udarako ikastaro eta barnetegiaren kasuan, abuztuaren 31 baino lehenago hasi bai, baina bukatzen ez diren ikastaroak ere lagundu ahal izango dira.

Dagokion ikastaroa bukatu eta hurrengo hamabost egunen barruan aurkeztu beharko du interesatuak eskaera.

LAGUNTZA BAKOITZAREN ZENBATEKOA

*Dirulaguntza matrikularen % 85 artekoa izango da.

- Herriko euskaltegietatik kanpoko euskaltegiaren egindako ikastaroei dagokienez, diruz lagundutako ikastaroetako matrikulak inoiz ez dira izango Lasarte-Oriako Udalak ordenantza fiskaletan udal euskaltegiko orduko prezio publikoetan ezarritako kopurua + % 10 baino handiagoak. Ordaindutako matrikulak kopuru hori baino handiagokoak balira, muga horretaraino bakarrik ordainduko ditu Udalak (dagokion subentzioaren ehunekoa aplikatuz). Kalkulu horretarako oinarritzko orduko prezioetatik honako hauek hartuko dira:
 - Ikastaro presentzialen kasuan, astean 10 orduko ikastaroaren prezio unitarioa.
 - Ikastaro ez presentzialen kasuan (autoikaskuntza, on-line...), 190 orduko ikastaroaren prezio unitarioa.
- Barnetegiak izango dira aurreko arauaren salbuespen. Kasu horretan, eskolei dagozkien matrikulak, osorik, izango dira subentzionagai (dagokion subentzioaren ehunekoa aplikatuz). Ostatu-gastuak ez dira diruz lagunduko.

DIRULAGUNTZAK ORDAINTZEA

Ekainaren 30a bitartean bukatutako ikastaroei dagozkien dirulaguntzen ordainketak bi zatitan egingo dira. Dagokien dirulaguntzaren % 60ko 1. ordainketa bat egingo da abuztuaren 31 baino lehenago eta, dagokien dirulaguntzaren % 40ko edo, horretara iristeko adinako krediturik ez balego dagoen diru-kopurua hainbanatuz, 2. ordainketa egingo da urtea amaitu aurretik.

Uztailaren 1etik abuztuaren 31ra bitartean bukatutako ikastaroei dagozkien dirulaguntzen ordainketak berriz, ordainketa bakarrean egingo dira. Ordainketa hori urtea amaitu aurretik egingo da eta % 60koa izango da gutxienez eta % 100ekoa edo horretara iristeko adinako krediturik ez balego dagoen diru-kopurua hainbanatuz gehienez

*Orri hau soilik informatiboa da. Araudi osoa Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, 2018ko martxoaren 22an dago argitaratua. (<https://ssl4.gipuzkoa.net/castell/bog/2018/03/22/c1802010.pdf>)



Euskaltegiko zuzendariaren ziurtagiria

Nik, _____, _____ euskaltegiko zuzendaria naizenak, ziurtatzen dut _____ jauna/andrea (DNI: _____) gure euskaltegiko ikaslea izan dela 2019-2020 ikasturtean eta ondoren zerrendatzen diren ezaugarri hauek izan dituela:

a) Ikastaro-mota:

- Euskaltegiko ikasturtean zeharreko ikastaroa, gutxienez 80 ordukoa.
- Barnetegia, gutxienez hilabete segidan.
- Udako ikastaroak (ikasturtean zehar aurreko bi ikastaro-mota horietako bat egin duten ikasleen kasuan bakarrik).
- Autoikaskuntza.

b) Ikastaroaren eta ikaslearen datuak:

- Ikastaroaren hasierako eguna: _ _ _ _ _ .
- Ikastaroaren bukaerako eguna: _ _ _ _ _ .
- Euskaltegiak emandako orduak: _ _ _ _ .
- Ikasleak hartutako orduak: _ _ _ _ .
- Asistentzia: % _ _ _ , _ _ .

- Gutxienerako aprobetxamendua gainditu du.

c) Ordaindutako matrikula:

(Eskolei dagozkien matrikulak soilik, ostatu-gastuei dagozkienak sartu gabe).

- _ _ _ _ , _ _ €.

Eta, idatziz jasota geratzeko eta dagozkion ondorioak izateko, honako ziurtagiri hau egin dut, _____n, 202__ko _____ren ____n.

Sinadura eta euskaltegiaren zigilua



Lasarte-Oriako Udalaz kanpoko dirulaguntzarik jaso ez izanaren zinpeko aitortpena

Aitorlearen datuak

Izen-abizenak:
DNI:

ZINPEAN AITORTZEN DUT

ez dudala Lasarte-Oriako Udalaz kanpoko dirulaguntzarik jaso 2019-2020 ikasturtean euskara ikasteagatik.

_____ n, 202__ko _____ren ____n.

Sinadura



**Lasarte-Oriako dirulaguntzen ordenantza arautzaileak 5. artikuluari jarraituz,
ez duela dirulaguntza publikoaren onuradun izateko
inolako debekurik adierazten duen deklarazioa**

Aitorlearen datuak


Izen-abizenak:
DNI:

ERANTZUKIZUNEZ DEKLARATZEN DU

Ez duela dirulaguntza publikoaren onuradun izateko inolako debekurik, Lasarte-Oriako Udalaren dirulaguntzak emateko ordenantza arautzaileak 5. artikuluan ezartzen dituen debeku-kasuen arabera (ikus atzealdean).

Lasarte-Orian, 202 ko _____ ren _____ an.

Sinadura,



Lasarte-Oriako Udalaren dirulaguntzak emateko ordenantza arautzailearen 5. artikulua

2. Ondorengo zirkunstantzia hauetako batean dauden pertsonak edo entitateak ezingo dira izan Ordenantza honetan arautzen diren dirulaguntzaen onuradunak edo entitate kolaboratzaileak, non eta dirulaguntzaren izaeratik beragatik ez den haren araudi erregulatzailean horrelakorik salbuesten:

- a) Epai irmoaren bidez dirulaguntzak edo laguntza publikoak eskuratzeko aukera galtzera kondenatuak izatea.
- b) Konkurtsoa deklaratzeko eskatua izatea, edozein prozeduratan kaudimengabe deklaratuak egotea, konkurtsoan deklaratuak egotea —non eta bertan hitzamen batek efikazia bereganatu ez duen—, interbentzio judizial bati lotuak egotea edo Konkurtsoen Legearen arabera ezgaituak egotea, konkurtsoa kalifikatzeko epaian finkatutako ezgaitasun-epea bukatuta egon gabe.
- c) Administrazioarekin eginiko edozein kontraturen deuseztapen irmoa eragin izatea, horren kausaren errudun deklaratuak izan badira.
- d) Pertsona fisikoa, merkataritzako sozietateen administratzaileak edo beste pertsona juridiko batzuen legezko ordezkari direnak Nazioaren Gobernuko kideen eta Estatuko Administrazio Orokorreko goi-karguen interes-gatazkak erregulatzeko 5/2006 Lege apirilaren 10ekoak eta Administrazio Publikoaren Zerbitzura Lanean ari diren Langileen Bateriaezintasunei buruzko 53/1984 Lege abenduaren 26koak araututako kasuetakoren batean egotea, edota Hauteskundearen Erregimen Orokorren 5/1985 Lege Organiko ekainaren 19koak araututako hauteskundearen karguetako edozein izatea, lege horretan edo arlo horiek arautzen dituen araudi autonomikoan ezarritako terminoetan.
- e) Egunean ez egotea indarrean dauden xedapenek ezarritako obligazio fiskalak eta Segurantza Sozialarekikoak betetzeari dagokionez, arauetan ezarritako moduan.
- f) Erregelamenduz paradisu fiskaltzat kalifikaturiko herrialde edo lurralde batean izatea bere egoitza fiskala.
- g) Dirulaguntzak itzuli behar izateagatik sorturiko obligazioen pagamenduan egunera ez egotea arauetan ezarritako terminoetan.
- h) Ebazpen irmo baten bitartez dirulaguntzak jasotzeko aukera galtzarekin santzionatua egotea, Dirulaguntzen Lege Orokorren arabera edo horrela ezartzen duten beste lege batzuen arabera.
- i) Sexuzko diskriminazioa egiteagatik santzio administratiboa edo penala jaso izatea, edo dirulaguntzak eskuratzeko debekuekin santzionaturik egotea, Emakumezkoen eta Gizonezkoen Berdintasunerako 4/2005 Lege otsailaren 18koaren arabera.
- j) Jarduera garatzeko behar den baimenean aurreikusitako baldintzak ez betetzeagatik ebazpen irmoz santzionatuak izan diren eskatzaileak.
- k) Arau honetan jasotako prozedura santzionatzailearen ondorioz dirulaguntzak eskuratzeko eskubidea galdua duten eskatzaileak, ebazpenean ezarritako epean.
- l) Ezingo dira onuradun izan artikulua honetako 9. puntuan aurreikusitako taldeak, haien kideetako edozein aurreko debeku horietakoren batean kausitzen bada.